Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

157

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko Ebazpenarena: «Ebazpena, 2008ko abenduaren 11koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (Eusko Tren) enpresak egiten duten trenbide-zerbitzuko 2009ko ekitaldirako tarifa berriak onartzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (Eusko Tren) enpresak ematen duen trenbide-zerbitzuko 2009ko ekitaldirako tarifa berriak onartzen dituen Euskadiko Prezioen Batzordearen 2008ko abenduaren 11ko Ebazpena 2008ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 249. zenbakian, eta bertan horrelako akatsak gertatu direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

Lehenengo artikuluko a) atalean («Ferrocarrileko 2009ko ekitaldirako tarifak»), 32.416 orrialdean, «(*) Noizean Behingo Tarifa» gaiari buruzko testuaren ondoren, paragrafo bat erantsi beharko da.

Honako hau esaten den tokian:

«(*)Noizean Behingo Tarifa:»

Honako hau esan behar du:

«(*)Noizean Behingo Tarifa:

Creditrans ordainketa-txartelaren bidez ordaindutako bidaiak 0,84 euroko prezioa izango du (Deustu-Lezama linea, T-1 tarifa)»

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

157

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 11 de diciembre de 2008, de la Comisión de Precios de Euskadi, por la que se aprueban las nuevas tarifas para el servicio de ferrocarril presentadas por Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. (Eusko Tren), para el ejercicio 2009.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Resolución de 11 de diciembre de 2008, de la Comisión de Precios de Euskadi, por la que se aprueban las nuevas tarifas para el servicio de ferrocarril presentadas por Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. (Eusko Tren), para el ejercicio 2009, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 249, de 30 de diciembre de 2008, se procede a su corrección:

En el artículo primero, apartado a) Tarifas para el ferrocarril, en la página 32.416, a continuación del texto referente a «(*)Tarifa Ocasional», se deberá incluir un párrafo.

Donde dice:

«(*)Tarifa Ocasional:»

Debe decir:

«(*)Tarifa Ocasional:

El precio del viaje abonado mediante tarjeta de pago Creditrans será de 0,84 euros (línea Deusto-Lezama, tarifa T-1)»